



«Zer bozkutzen duen jakin behar du jendeak»

ATEZ Ateko Komunikazio Zerbitzuak prentsa ohar bidez jakinarazi duenez, hondakinen kudeaketaren inguruan galdeketa egitearen aldekoak dira, baina beraien esanetan, «galdeketa egin aurretik jendeak zer bozkutzen duen jakin behar du». Horrez gain, azaldu du, oposizioaren gehiengoak proposatutako galdeketa egitea ez dutela egoki ikusten, Hernanik ez duelako Usurbilgo atez atekoa kopiatuko. /2

Langilek kontzentrazioa eta sinadura bilketa egingo ditu

LANGILE Ikastolak zenbait ekintza burutuko ditu datozen egunetan. Aldarrikatzen duena honakoa: *Hezkuntza proiektua aukeratzeko eskubidearen alde inposaketarik ez!! 4garren lerroari bai!*. Gaur bertan, kontzentrazioa eta sinadura bilketa izango dira kiroldegiko pilotalekuaren aurrealdean, arratsaldeko 18:00etan. /2

❖ GABONETAKO EKINTZAK 2009

Haurrentzako bertso saioa gaur

Gabonak datorren astean hasten dira, baina hilabete osoan zehar hainbat ekitaldi ari dira izaten. Gaurkoan esaterako, haurrentzako bertso saioa antolatu du Hernaniko Bertso Eskolak. Larunbata eta igandean berriz, izango dira umeentzako zinea eta kontzertuak. /7

❖ EGUNKARIA AUZIA

Egunkaria auzia salatzeko manifesta- zioa egingo da etzi Bilbon

Larunbatean manifestazioa egingo da Bilbon, Egunkaria auzia salatzeko, eta Hernanitik autobusa aterako da. Autobusean joateko izena eman behar da aldeztu aurretik, eta horretarako aukera dago Oindi, Kitto eta Txili tabernetan. Manifestazioan, salatuko dute herenegun Madrilén hasi zen epaiketa eta auzia bera. Epaiketan auzipetuta daude Martxelo Otamendi, Iñaki Uribe, Joan Mari Torrealdai eta Xabier Oleaga. /8



Gabonak ospatzen hasi dira Inmaculada ikastetxean

EGUBERRIETAKO jaialdia ospatu zuten atzo Inmaculada ikastetxean, eta banaka banaka, eskaini zuen kurtso bakoitzak aurretik ondo prestatutako ikuskizuna. Hala ere, atzokoa ez zen izan ikastetxean Gabonak girozke egingo duten ekitaldi bakarra. Bihar Santo Tomas feria egingo dute, eta Eguberri bezperan erronda. /2

GAUR KRONIKAN

Laburrak/2-8

Jasota Bezala: Langile ikastolari 4. lerroaren onarpena aldarrikatu diogu/2

Eskelak /8

biokbi
optika

Antziola, 14
Tel.: 943 33 68 86

Eguberri zoriontsuak
opa dizkizuegu!!!



Orain, betaurreko graduatuak edo eguzkitako betaurrekoak erosita, eta opari bat egingo dizugu.

AKELENEA
Erretegia - XIX Mendeko Sagardotegian

Koldo eta Ana

Eguneko menuak
Kuadrilako bazkariak
Karta

Abenduaren 24tik, Urtarrilak 3ra arte
ITXITA (biak barne)



Egunero
zabalik
Ondo pasa
Gabonetan !!

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - Tel. 943 333 333

❖ INMACULADA IKASTETXEA

Eguberritako jaialdiaren atzetik, Santo Tomas eta Gabon erronda

Santo Tomasetako feria bihar izango da.

ASTEBETE besterik ez da geratzen Eguberritarako eta hori nabari da Inmaculada ikastetxean, atzo egin baitzuten Eguberritako jaialdia. Ikasleek emanaldi ezberdinak eskaini zituzten guraso eta lagunen gozamenarako. Eta jaialdiari amaiera emateko, abesbatzak bi kanta abestu zituen: parrokiko jaialdian abestutakoak.

Jaialdia eginda, Santo Tomas eguna ere gainean da eta

Inmaculada ikastetxeok bihar ospatuko dute feria. Eskolan bertan izango da goizeko 10:00etatik aurrera. Herritar guztiei luzatu diete gonbidapena gerturatzeko.

Gabon erronda

Datorren ostegunean, berriz, Eguberri egunaren bezperan, urteroko Gabon erronda izango da, 10:30etatik aurrera, herriko kaleetan zehar. ||

❖ LANGILE IKASTOLA

Hezkuntza proiektua aukeratzeko eskubidearen alde, zenbait ekintza

Gaur sinadura bilketa eta kontzentrazioa.

LANGILE Ikastolak jakinarazi duenez, zenbait ekintza burutuko ditu datozen egunetan, *Hezkuntza proiektua aukeratzeko eskubidearen alde inposaketarik ez!! 4garren lerroari bai!!* lema-rekin. Gaur bertan, 18:00etan, kontzentrazioa eta sinadura bilketa izango dira kiroldegiko pilotalekuaren aurrealdean.

Bihar eta etzi, kontzentrazioerik ez, baina sinadurak biltzen jarraituko dute.

Plaza Berrin egongo dira. Bihar arratsaldeko 19:00etan, eta larunbatean, eguerdiko 12:00etan.

Kontzentrazioa Donostiako Hezkuntza Sailan

Hilaren 23an, datorren asteazkenean, kontzentrazioa egingo dute Donostiako Hezkuntza Sailaren Delegazioaren aurrean. Eguerdiko 12:00etan izango da. ||

❖ ATEZ ATEKO KOMUNIKAZIO ZERBITZUAREN PRENTSA DHARRA

«Herri galdeketaren aldekoak gara, baina jendeak zer bozkatzten duen jakin behar du aurretik»

Oposizioaren gehiengoak plenoan proposatutako galdeketa egitea ez dute egokia ikusten, Hernanik ez duelako Usurbilgo atez atekoa kopiatuko.

ATEZ Ateko Komunikazio Zerbitzuak prentsa ohar bidez jakinarazi duenez, hondakinen kudeaketaren inguruan galdeketa egitearen aldekoak dira, baina beraien esanetan, «galdeketa egin aurretik jendeak zer bozkatzten duen jakin behar du: atez atekoa praktikan ezagutu, hondakinen bilketarako dauden sistema guztiak ezagutu eta orduan nahi bada, herriari galde-tu». Eta honakoa gaineratu

dute: «Zergatik diote beldurra herri galdeketa atez atekoa martxan jarri ondoren egiteari? Atez atekoa hain sistema txarra bada, herna-niar guztiek aurka bozkatu beharko lukete. Baina errauste-plantaren aldekoak atez ateko sistema ona dela bada-kite. Horregatik egin nahi dute galdeketa aurretik».

Atez atekoarekin konparatuta, diotenez, errauste-plantak ez duela herritarren

osasuna bermatzen eta «disparate bat» dela atez atekoa bozkatzeko eskatzea, proposatzen den alternatiba errauste-plantak denean.

«Galdeketa arma politiko moduan erabiltzen ari dira»

Oposizioaren gehiengoak, hau da, PP, PSOE, EAJ-PNV eta Hamaikabat alderdiek herriari galdeketa egitea proposatu dute honako galde-arekin: *ados al zaude Hernanin*

ezartzearekin Usurbilgo hondakinen atez ateko bilketa sistema? Komunikazio Zerbitzu-koek diote ez dutela egoki ikusten galdera Hernanik ez duelako Usurbilgo atez atekoa kopiatuko. Eta gaineratu dute, galdeketa arma politiko moduan erabiltzen ari direla: «herri galdeketaren alde egongo balira, Gipuzkoa mailako herri galdeketa bat planteatuko lukete, Zubietako errauste-plantaren inguruan. ||

❖ SEASKA

Seaskako egutegiak salgai jarriko dituzte gaur ferian

Azken aldian Seaskako egutegiak ohiko merkataritza guneeetan izan dira salgai. Baina gaurkoan, ferian ere erosi ahal izango dira. Urbieta kale hasieran jarriko dute postua, egun osoan zehar. ||

❖ ZUMITZA ZIKLOTURISTA ELKARTEA

Federatu lizentziak egiteko aukera izango da gaur

Zumitza Zikloturista taldeak bost urte darrazki txirindulariak biltzen, eta orain talde ofiziala sortzeko erabakia hartu dute. Gauzak horrela, elkartetik jakinarazi dute nahi duen guztiak federatu lizentziak egiteko aukera izango dutela. Lizentziak egiteko aukera hilabete osoan zehar izango da, astearte eta ostegunetan, hortaz, gaur. Lizentziak Zumitzan bertan egingo dira, arratsaldeko 19:00etatik 20:00etara. Datorren denboraldiko ekipazio berria eskatzeko aukera ere izango da. ||

❖ ELKARTASUNA

Saharako janari bilketaren inguruko bilera gaur Biterin

Saharako errefuxiatu kanpamenduetarako janari bilketa hasi dira egiten dagoeneko herriari, eta gaur antolatzeko bilera egingo dute, 19:00etan, Biterin. Bertan taldeak egingo dituzte supermerkatuetan egoteko eta lokalean janaria kaxetan sartzeko. Jakinarazi dute jendea behar dutela, eta animatzeko deia luzatu dute. Horrez gain, bihar eta etzi supermerkatuetan jarriko dira, BM, Erosle, Eroski eta Charterren alegia. Baita ere, kontu korrantea jarri dutela adierazi dute. ||

❖ ZUMITZA JATETXEA

Mus txapelketa gaur gauean

Zumitza jatetxean mus txapelketa antolatu dute gaur gauean, Santo Tomasetan urtero antolatzen dutena. 22:00etan hasiko da, eta izena hasi aurretik eman behar da. ||

❖ GAZTETXEA

Urteurrena dela eta, bazkaria egingo dute etzi, eta txar-

telak salgai daude

Kontraktantxa Gaztetxeak hiru urte betetzen ditu aurten, eta ospatzeko bazkaria antolatu dute larunbatean. Atsegindegina izango da eta txartelak Garinen erosi behar dira, 10 euroren truke. Gaur izango da erosteko azken eguna. ||

❖ OSOKO BILKURA

Atez ateko sistemari buruzko herri kontsulta gaur aztergai

Osoko Bilkura izango da gaur Pleno aretoan, eta bertan aztertuko dituzte atez atekoari buruzko herri kontsulta, eta Aminetu Haidarrekiko elkartasun mozioa. 18:00etan. ||

❖ EUSKARA BATZORDEA

Buruntzaldeko egitasmoen berri ematea gaur hizketagai

Hezkuntza, Kultura eta Euskara batzordea izango dira gaur Udalean, eta besteak beste, Buruntzaldeko egitasmoen inguruan hitz egingo dute. 16:30etan hasita. ||

👉 **Jasota Bezala**

• Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izen-abizenak, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa • Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira • Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Langile Ikastolari 4. lerroaren onarpena aldarrikatu nahi dugu.

2-3 urteko seme-alaben gurasoak gara. Iaz 2009-2010 ikasturterako Hernaniko Langile Ikastolan egin genuen aurrematrikula. Gure seme-alabak eskolako kopuruetatik kanpo geratu zirenez, beste ikastetxetara eramatera behartuak izan ginen edota etxean itxaroteko erabakia hartu genuen. Beti ere, gure nahia, hurrengo ikasturtean 2010-2011n Langilen matrikulatzea zen, 3 urtekoen geletako ratioak, 18tik 23ra pasatzen direla jakinik eta ondorioz gure haurrentzat plaza nahiko egongo zela pentsatuz.

Langile Ikastolara jo dugunean, gure seme-alaben matrikula datorren ikasturterako zertan den jakiteko, Hezkuntza Sailak, lau lerroekin ezin dutela jarraitu jakinarazi dietela esan digute, larunbateko prentsa-idatzian azaldu zen moduan. Ondorioz, ezarritako aldaketa honek gure seme-alaben matrikulatzeko aukera ezabatzen du.

Gurasoek gure seme-alabentzat egokien deritzogun Hezkuntza Proiektua aukeratzeko eskubidea dugula jakinda, erabaki honek gure eskubideak urratzen dituela uste dugu, gure aukeraketa Langile Ikastolan heztea izan baita. Hori dela eta, umeak Langile Ikastolan ikasteko eskubidea izatea eskatu nahi dugu, 4. lerroaren onarpena aldarrikatuz. Horretarako, Hezkuntza Delegaziora eskaera luzatzearekin batera, Arartekora jotzeko asmoa dugu, dagokigun eskubidea berma diezaguten.

Datozen ikasturteetan Langile Ikastolan matrikulatzeko asmoa duzuenoi zuen babes eta indarrak batzera gonbidatu nahi zaituztegu, denon artean 4. lerroa onarpena lortzeko. Otsaileko matrikulazioa gainean dugula jakinik, alde aurretik mugitu beharra ezinbestekoa ikusten dugu. Iaz 12 izan ginen lekuri gabe geratu ginenak; 4. lerroa desagertuz gero, (20 plaza gutxiago 3 urtekotan), eta iazko matrikula errepikatuko balitz, 32 ume izango lirarteke Langile Ikastolan ikasteko aukerarik gabe geratuko lirartekeenak. Egoera horretan aurkituko zareten gurasoak bazarete eta gurekin bat egin nahi izanez duzue, deitu ondoko telefonoetara: Langile Ikastola 943555423 edota beste honetara Iratxe 695781948 (arratsaldez).

Bestetik, Hezkuntza Proiektua aukeratzeko eskubidearen alde inposaketarik ez eta 4. lerroaren alde, lelopean, egunotan eta gaur osteguna arratsaldeko 6etan Atsegindegina egingo den elkarretaratze eta firma bilketan parte hartzea animatzen zaituztegu.

Esther Gaztelumendi
eta Arantza Lareki

(Egoera horri aurre egiteko elkartzeko gurasoen izenean)

IKASLEEN TXOKOA - Inmaculada ikastetxea



Joxan Goikoetxea, Hernaniko / III Udal Musika Eskolako zuzendaria

LAIN MUSIKA TALDEA
«Ez dugu etorkizunari
begira lan egiten,
egunean egunekoa bizi dugu» / II

Josu T., Cristian G. Iñaki A.



Iritzi Artikulua: «Agora»

Olatz Aranburu, Joan Ormaetxea, eta David Ramos / IV

Kirol minoritarioak

Hernanin / IV

Olatz Aranburu, Joan Ormaetxea,
eta David Ramos

IV / Egileen argazkia



Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

INMACULADA IKASTETXEA

LAIN TALDEA:

«Ez dugu etorkizunari begira lan egiten, egunean egunekoa bizitzea gustatzen zaigu»

Leire Berasaluze, Javi Rivero, Kristina Aranzabe, Imanol Urkola eta Jon Altuna dira Billabonako Lain Pop-Rock taldea osatzen duten gazteak. Lain taldeko gazteekin elkartu gara:

JOSU T., CHRISTIAN G., ETA
IÑAKI A.
Inmaculada ikastetxea

**Zer esan nahi du Lain hitzak? Nola erabaki zenu-
ten izena?**

Ega-ko azterketa prestatzen ari ginen eta sinonimoen liburutik hitz arraroak hartu genituen. Horietako bat lain zen eta nahikoa edo adina esan nahi du.

Noiz hasi zineten musika munduan? Nondik ezagutzen duzue elkar?

Txikitatik hasi ginen eta Loatzu musika eskolan ezagutu ginen, denok jotzen baikenuen instrumenturen bat.

Nola bururatu zitzaizuen talde bat sortzea?

Berez ez genuen planteatu, baina kontzertu pare bat eskaini zizkiguten eta hortik aurrera taldearentzat izen bat behar genuela pentsatu genuen.

Maketa lehiaketa irabazi zenuten, eta horren sarietako bat BBK live-en kontzertu bat ematea izan zen, zer moduzko esperientzia izan zen?

Eszenatoki handia zen, giro ona zegoen baina kontzertua oso motza izan zen.

Zuen lehen diskoa atera berria da, nola ari zarete bizitzen?

Elkar diskoetxearekin diskoa grabatzea kristoren esperientzia da eta nahiko ondo saltzen ari da.

Zuen diskoari buruzko iritzirik iristen al zaizue? Zein dira gehien gustatzen ari diren kantak? eta zuei zein gustatzen zaizkizue gehien? Gehien gustatu direnak *Itxaropen hautsien kaxa*, *Limoizko ilargia* eta *Esaidazu*. Guri denak gustatzen zaizkigu gure seme-alabak bezalakoak baitira.

Diskoan Mikel Laboaren bertsio bat sartu duzue Haika mutil. Mikel Laboa garrantzitsua izan al zen zuentzat? Nola sortu zen haren kanta bat bertsionatzeko ideia?

Hasiera batean Victoria Eugenia kontzertu baterako prestatu genuen, eta atzeratu zenez diskoan sartzea erabaki genuen.



Lain taldeko kideak.

Zuetako zeinek idatzen ditu kantak?

Denon artean sortzen ditugu kantak, batzuk musika, beste batzuk letra. Denon artean sortutakoak aldiz ez zaizkigu hainbeste gustatu. Javik *Lain* sortu du, Leirek *Itxaropen hautsien kaxa*, Imanolek *Sokak hautsita*, Kristinak *Limoizko ilargia* eta Jonak *Esaidazu*.

Nolakoa izan da Itxaropen hautsien kaxa-ren bideokliparen grabaketa?

Oso ondo pasa genuen, tipoa oso jatorra zen eta bi goizetan grabatu genuen.

Seguru asko taldeko kide guztiek ez dituzue gustu berberak, nola moldatzen zarete?

Denok oso desberdinak gara baina antzik gehiena Javik eta Imanolek dute. Azkenean denon artean moldatu beharra daukagu.

Nola moldatzen zarete ikasi eta kontzertuak batera egiteko?

Zaila egiten zaigu, klaseak galdu behar ditugu eta sakrifikatu egin behar da. Ondo antolatu behar dugu dena ondo atera dadin.

Nolakoa izan zen Lain-en lehenengo kontzertua?

Oso urduri geunden eta batzuk paseatzera joan ginen. Jotzen genuen taberna bete-betea zegoen.

Non egoten zarete erosoago estudioan grabatzen ala eszenatoki baten gainean?

Zeharo desberdina da, Elkarren oso gustura egon gara grabatzen, oso ongi tratatu gaituzte eta kontzertuak tokiaren arabera desberdinak dira.

Zaila al dute gaur egun euskaraz abesten duten euskal taldeek Euskal Herritik kanpora abesteko?

Bai zaila da, Katalunian

sartzeko gutxienez abesti bat katalanez izan behar da. Euskal Herritik kanpora diskografi talde oso garrantzitsuetan dauden taldeak soilik ateratzen dira.

Gaur egun internetek eta top mantak diskografiak zapuzten ari dira, ze iritzi duzue hortaz?

Denok pirateatu dugu noizbait. Guk azkenean gure musika zabaltzea nahi dugu, gero kontzertuak emateko.

Zeinek eman dizute babes gehien Lain taldearen proiektuan?

Gure gurasoek eta Elkar-ekoek eman digute babes gehien proiektu honetan, batez ere ekonomikoa.

Etorkizunari begira nola ikusten duzue zuen taldea?

Egia esan ez dugu etorkizunari begira lan egiten; egunean egunekoa bizitzea gustatzen zaigu.

Eskerrik asko eta zorte on! ||



Kontzertu ugari eman dituzte urte osoan zehar.

'Hernani'

Musika Eskola Publikoa

"Hernani" Musika Eskola Publikoa 1985ean sortu zen, beraz 2009-10 ikasturtean 25 urte beteko ditu. 25 urte hauetan, 20 irakaslez osatutako taldea sortu dute eta hauek ikasgai berriak eta irizpide berriak sortzen ahalegin handia egin dute.

Betidanik Hernaniko Herriak musikarekin harreman estua izan du. Aspaldidanik izan ohi baititu Musika Banda, Txistulari taldea, abesbatza eta musika irakasteko zentroa.

Musikari ospetsuak herriarekin eta musika eskolarekin lotura izan dute, Ansorena familia (Joxe eta Isidro pertsonai oso garrantzitsuak txistuaren historian), Jose eta Gabriel Olaiola (kantuaeren arloan oso nabarmenak), D. Manuel Yaben (Akordeoilari eta parrokiako

organista), Mikel Bikondoa (akordeoian katedraduna) etab.

Etorkizunerako plan berriak ere badituzte. Eraikin berria egitea gutiz beharrezkoa da, Atzieta kaleko egoitzak ez baititu beharrezkoak diren baldintzak betetzen (gela txikiak eta gutxi daude) eta ez du asetzen herrian gaur egun dagoen eskaria. 400 ikasle jarduten dira bertan.

25 urte hauek ospatzeko, antolatuko dituzten emanaldietan, irakasle, ikasle eta ikasle-ohiek parte hartuko dute.



Joxan Goikoetxea.

Joxan Goikoetxea, zuzendari berriari galdeketa egin diogu:

Zenbat urte daramazu "Hernani" Musika Eskola Publikoan lanean?

Duela 25 urte Musika Eskolaren etapa berrian hasi ginenotatik gaur egun hiru gelditzen gara, Juan Mari Beltran, Arantxa Alberdi (piano irakaslea) eta ni neuz. Aurretik udaletxeak sortutako "Academia de Música" deitzen zena bazen udaletxean bertan, baina Jaurlaritzak legealdi berria sortu zuen bai hezkuntza orokorra, bai hezkuntza artistikoa eta bai musikala erregulatzeko eta aukera aprobetxatuz, musika eskola berregituratzean filosofia berriaz enfokatu eta instrumentu gehiago sartzea erabaki genuen, biolina, saxoa eta beste instrumentuak sartuz, ordura arte klasikoa bakarrik erakusten zelako, pianoa, akordeoia eta txistua..

Aldaketa asko nabaritu dira, zu hasi zinenetik gaur egun arte?

Noski, batetik 25 urte hauetan musika erregulatzeko duen legea bi aldiz aldatu da; bestetik, hasieran Musika Eskola Munizipala zen eta gero Kontserbatorio elementala. Oinarrizko ikasketetan balio ofiziala zuen titulua ematen zuen, baina figura hori desagertu egin da. Geroztik erdi-maila eta goimailako zentroak daude eta guk zentroa Musika Eskola bihurtu genuen, orokorrean ia herri guztietan dagoen figura.

25 urte hauetan, garaiaren arabera helburu desberdinak izan dira. Bestetik generazio asko pasa dira Musika Eskolatik, gaur egun musikari profesionalak diren asko ere hemendik pasa dira. 25 urte hauetan aldaketak egon dira: ikasleen perfila, lanerako tresnak (lehen partiturak eskuz egiten genituen, ez genuen ordenagailurik, eta

partiturak lortzeko edo erosteko aukerak oso konkretuak ziren), metodologia, partiturak, materialak...

Aipatzekoa da Hernaniko Musika Eskola Espainiako lehenengoetako zentroa izan zela informatika musikala erabiltzen.

Zure ustez, ikasleak prestatuta ateratzen al dira goimailako ikasketetara joateko?

Badira hemendik ateratako ikasleak goimailako ikasketak bukatu dituztenak, baina helburua ez da hori. Herrian musika hezkuntza zabaltzea eta jendeak Musika Eskolan jarraitzea baizik. Horregatik musika eskolan sartzen den pertsonak ez du zertan utzi beharrik, abesbatzan edo instrumentuarekin bizitza osoan jarrai baitezake.

Ikasleetatik oso portzentia txikiak lortuko du goimailako ikasketak amaitzea, arrazoi desberdinetatik. Gure helburua jendea hemen mantentzea da. ||



	ESKOLARTEKOAK												FEDERATUAK												GUZTIRA			%	
	INFANTILAL				KADETEAK				JUBENILAK				INFANTILAK				KADETEAK				JUBENILAK				Mas	Fem	Tot		
	Mutil.		Neska.		Mutil.		Neska.		Mutil.		Neska.		Mutil.		Neska.		Mutil.		Neska.										
	H	K	H	K	H	K	H	K	H	K	H	K	H	K	H	K	H	K	H	K	H	K							
Futbola	11		42									35	1			39	6	21	1	29	11	6	2	132	72	204	39,3		
Errugbia	8														25	5			18	5					61	0	61	11,8	
Boleibola			12														19		7	1	11	3			8	45	53	10,2	
Saskibaloia	23														5	5			9	1					43	0	43	8,3	
Eskupilota												9				17				12	1					39	0	39	7,5
Pala			15														5					6			0	26	26	5,0	
Arrauna												12	1			5	1	3		1	1	1		20	5	25	4,8		
Atletismoa	3		5												4		5		3		4			10	14	24	4,6		
Igeriketa	4		5										1				4		3		2	1		7	13	20	3,9		
Gimnastika			15																		2	2		0	19	19	3,7		
Judoa	1	1													1				2					5	0	5	1,0		
	50	1	94	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	56	2	1	0	96	17	57	1	83	20	32	9	325	194	519	100,0

Kirol minoritarioak Hernanin

Hernanin hainbat kirol praktikatzen dira. Futbola da, bai nesken eta mutilen artean gehien praktikatzen den kirola, errugbia eta boleibola atzetik dituela. Baina badaude gutxiago praktikatzen diren kirol batzuk ere; igeriketa, eta arrauna bezala. Kirol minoritario esatean jende gutxi praktikatzen

dituela esan nahi dugu.

Kirol hauetako bi entrenatzaile galderak egin dizkiegu:

Zenbat entrenatzen duzue astean zehar ?

Arraunketa: Infantilak astean bitan joaten dira, kadeteak berriz hiru egunetan, jubenilak lau egunetan eta seniorrak sei

egunetan.

Atletismoa: Umeekin ordu bat astelehen eta ostegunetan. Federatuekin berriz, ordu bat eta laurden astelehen, astearte, asteazken eta ostegunetan.

Urteak pasa ahala jende gehiago animatzen al da ?

Arraunketa: Duela hiru

urte hasi ginen eta urtero jende gehiago animatzen joan da.

Atletismoa: Ez da jende asko gehitzen, gaudenok ia guztiok mantendu egiten gara. ||

Olatz Aranburu
Juan Ormaetxea
David Ramos

Olatz Aranburu
Juan Ormaetxea
David Ramos

IRITZIA



Agora

Alejandro Amenabarren film hau kristautasunaren hasieraren testuinguruan kokatzen da. Filmak kontatzen duen istorioan kristautasunak beste erlijioekin izan zuen harremana ikus dezakegu. Alexandriako liburutegian eta haren inguruko lurraldeetan garatzen da filma gehien bat. Kristautasunak gutxika-gutxika jarraitzaile gehiago ditu, lehen erlijio bihurtu arte. Hipatia Alexandriako emakume filosofoa da eta bere ikasle eta bertako jendearekin herriko liburutegia babesten saiatuko da. Baina kristauek liburutegia bereganatzea lortuko dute alexandriarren eta kristauen arteko borroka baten ondoren.

Filmak sekulako arrakasta izan du, batez ere emandako publizitateagatik, bai antzezle eta zuzendariarengatik ere. Gure iritziak filma oso luzea eta astuna egiten da ikusteko, baina gaia gustatuz gero interesgarria egin daiteke, bai eta disfrutatu ere.

Alearen egileak:



Inmaculada ikastetxeko ikasleak izan dira gaurko alearen egileak.

Haurrentzako bertso saioa, zinea, eta kontzertuak gaurtik igandera bitartean, Gabonetako ekintzen barruan

Datorren astea Gabon gau astea izango da, eta hortaz ez dira Olentzeroren inguruko ekitaldiak faltako: Gabon kantak, Olentzeroren irteera kale eta baserrietara, eta abar.

GABONAK bete-betean ospatzeko aitzakiarik ez da izango aurten, Hernaniko talde ugari eta Udalak ekitaldi mordoa antolatu baititu hilabete osorako: kontzertuak, zinea, haurrentzako jolasak, bertsoak, eta abar.

Haurrentzako bertso saioa gaur arratsaldean
Umeak izaten dira Gabonetako

protagonista nagusiak, eta asko dira hauei zuzendutako ekitaldiak. Gaur arratsaldean esaterako, haurrentzako bertso saioa izango da Biteri kultur etxean. Hernaniko Bertso Eskolak antolatutako ekitaldia da, eta arratsaldeko 14:30etan hasiko da.

Zinea eta kontzertuak asteburuan
Asteburuan ere, kuturaz go-

zatzeko aukera nahikoa izango da. Arratsaldeko 17:00etan umeentzako zinea izango da, *Olentzero eta oparien ordua*. Arratsaldeko 17:00etan izango da, Biteri kultur etxean.

Bi ordu beranduago berriz, Milagrosako kaperan, Gabonetako kontzertua eskainiko dute Ozenki Abesbatzak eta Musika Bandak, 19:45etan hasita.

Igandean berriz, alde-rantziz izango da. Eguerdikiko 13:00etan Udal Txistu Bandaren kontzertua izango da Milagrosako kaperan. Eta arratsaldean, *Olentzero eta oparien ordua* pelikularen emanaldia, 17:00etan hasita.

Olentzeroren magia
Gabon gau bezperan, Olen-

tzereoren magia nabaria izango da herrian. Gabon kantak kantatuko dituzte, kalez kale, Musika Eskolako ikasleek. Gabon gau egunean berriz, goizean, ikastoletako olentzeroa ibiliko da herrian barrena. Arratsaldean izango dira, erronda, eta olentzeroa ibiliko da kalez kale eta baserri baserri, umeen ilusio eta irrika artean. ||

GABONETAKO EKINTZAK 2009

ABENDUAK 17

Haurrentzako Bertso saioa
Antolatzailea: Bertso Eskola
Lekua: Biteri kultur etxea
Ordua: 14:30

ABENDUAK 19

Zinea euskaraz:
Olentzero eta oparien ordua
Lekua: Biteri kultur etxea
Ordua: 17:00

Gabonetako kontzertua
Antolatzailea: Ozenki abesbatza, Hernaniko Musika Banda
Lekua: Milagrosako kaperan
Ordua: 19:45

ABENDUAK 20

Eguberriko txistu kontzertua
Taldea: Udal Txistulari Banda
Lekua: Milagrosa kaperan
Ordua: 13:00

Zinea euskaraz:
Olentzero eta oparien ordua
Lekua: Biteri kultur etxea
Ordua: 17:00

ABENDUAK 23

Gabon kantak kalez kale
Musika eskolako ikasleak
Ordua: 17:00

ABENDUAK 24

Goizez: Ikastoletako Olentzeroak
Arratsaldez:
Baserriz baserri Olentzeroa
Ordua: 15:00
Lekua: Gudarien plaza

Gabon kantak kalez kale
Ordua: 17:30
Lekua: Apaizetxean (Izpizua 1)

Olentzeroa kaleetan zehar
Antolatzailea: Ttarla Dantza Taldea
Ordua: 18:00
Lekua: Gudarien plazan

Gabon gaueko erronda
Antolatzailea: Musika banda
Ordua: 20:00
Lekua: Gudarien plazan

ABENDUAK 26

Bertso bazkaria
Antolatzailea: Bertso eskola

Haurrentzako jolasak: 'Ibilbide interkulturala'
Lekua: Atsegindegin
Ordua: 11:00-14:00

Zinea euskaraz:
Txori Urdin
Lekua: Biteri kultur etxea
Ordua: 17:00

ABENDUAK 27

Zinea euskaraz:
Txori Urdin
Lekua: Biteri kultur etxea
Ordua: 17:00

ABENDUAK 28

Ur festa kiroldegian: 14-15 urte bitarte
Ordua: 10:00-13:00

ABENDUAK 29

Hitzaldi-aurkezpena:
Antolatzailea: Bertso eskola

Saskibaloiko Gabonetako torneo
Ordutegia: 16:15-20:30

BARRENE herrikoia. Pala
Lekua: Kiroldegiko frontoia
Ordua: 10:00

ABENDUAK 30

Tatatxan jauna: magia komikoa
Lekua: Biterin
Ordua: 17:00

Saskibaloiko Gabonetako torneo
Ordutegia: 16:15-20:30

ABENDUAK 31

Urte Zaharreko Erronda
Lekua: Gudarien plazatik
Ordua: 17:30

URTARRILAK 1

Incansables txaranga
Ordua: 01:30

URTARRILAK 2

Bertso Jaialdia

Zinea euskaraz:
Pluk
Lekua: Biteri kultur etxea
Ordua: 17:00

URTARRILAK 3

Zinea euskaraz:
Pluk
Lekua: Biteri kultur etxea
Ordua: 17:00

URTARRILAK 4

Disko festa txiki:
Lekua: Atsegindegi plaza
Ordua: 17:00

URTARRILAK 5

Erregeen kabalgata
Irteera: Latsunbeberri auzotik
Ordua: 18:00

TRIPA BETE NAHI?

sabemos castellano

taberna tripontzi

PINTXOEN, RAZIOEN, ENTZALDEN, PLATER, KONBINATUEN ZATOK DASTATZERA!

Kardaberaz kalea, 11 • HERNANI • 943 555 724

JOSU ALKORTA
harategia

JABUGORIK ONENA... BENETAKO JABUGOAN!

Nafar kalea 11 Tel.: 943 551 681

GARAYAR AVTOBYSAK

Zerbitzu diskrezionalak (ESKOLARRAK)

Autobus zerbitzua Linea erregularrak

Hernani - Aiete - Donostia - Aiete - Hernani
Andoain - Urnieta - Hernani - Donostia - Hernani - Urnieta - Andoain

Jauregi bailara 17 - Tel.: 943 556 658
Fax: 943 331 208 e-maila: mgarayar@facilnet.es 20120 Hernani (Gipuzkoa)

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622 ● **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa**: 943 006666 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103
● **FARMAZIAK** ● Eguez: **Etxebeste** Elcano 2 - 943 552087 ● **Gauetz**: **Castilla** Urbieta 7 - 943 552941

EGURALDIA ● **GAUR** Goizean prezipitazioak espero dira eta elur moduan egingo du 400 edo 600 m-tik gora. Arratsaldean atertu egingo du. Gauean, berriro botako du izotza.
● **BIHAR** Okerrera egingo du eguraldiak. Izotz galanta botako du. Goizean, prezipitazioa hasten denean, elur moduan egingo du maila nahiko baxuetan. (euska.net)

❖ EGUNKARIA LIBRE!

Ehundik gora lagunek egin dute bat Egunkaria auzia salatzen

Larunbatean manifestazioa egingo da Bilbon eta Hernanitik autobusa jarri da. Izena eman daiteke Oindi, Kitto eta Txilin.

MARTXELO Otamendi, Iñaki Uribe, Joan Mari Torrealda eta Xabier Oleagaren, hau da, Egunkaria auzian auzipetuta dauden bost lagunen aurkako epaiketa herenegun hasi zen, eta epaiketa hori eta auzia bera salatzen, kontzentrazioa egin zen egun berean, Hernanin. Plaza Berrin izan zen, *Egunkaria libre!* lemapean eta 150 lagun inguru bildu ziren.

Bilborako autobusa

Larunbatean Bilbon egingo den manifestaziorako, autobusa jarri dute Hernanitik. Izena eman liteke, Oindi, Kitto eta Txili tabernetan. Autobusa 14:30etan aterako da Atsegindegitik. ||



❖ GOIZ EGUZKI

Bilera informatiboa izango da gaur, maiatzean egingo duten kruzeroaz hitz egiteko

Goiz Eguzkiko kideek kuzeroa egingo dute Mediterraneoan zehar maiatzean, eta gaur, bilera informatiboa izango da gaiaz hitz egiteko. Arratsaldeko 16:00etan izango da areto nagusian. Kuzeroa antolatu duen agentziak emango ditu bidaiaren azalpenak. Bidairako irteera eguna maiatzaren 31 izango da eta Bartzelonako portutik aterako dira. ||

❖ MUSIKA

Dj rockKaiet izango da musika jartzen Bukowskin, larunbatean

Egiako Bukowski tabernan Dj rockKaiet izango da musika jartzen gaueko 23:30etatik aurrera. Besteak beste honako musika jarriko du: rockavilly, rock 'n'roll, garage, rhythm 'n' blues, soul, 70 's funk, deep funk, disco, boogaloo eta grooves. ||

❖ GARIN TABERNA

Mus txapelketa izango da bihar

Garin tabernan mus txapelketa jokatu da bihar, gaueko 22:15etan hasita. ||

❖ KULTUR BONDAK

Bonoak eskuratu eta erabili ahal izango dira Gabonak bitartean


Eusko Jaurilaritzak Kultur Bonoak izeneko bonoak atera ditu kultur kontsumoa bultzatzeko asmotan. Bonoen bitartez liburuak, musika, zine edo zuzeneko ikuskizunetarako sarrerak, museotan sartzeko fidelizazio-txartelak eta abar erosi daitezke.

Bono bakoitzak 25 euroko kostua du, baina 40 euroko balioa ematen dio erabiltzaileari, hau da, 15 euroren diferentzia hori Eusko Jaurilaritzak ordaintzen du. Astelehenean zabaldu zen bonoak egiteko aukera eta urtarilaren 5era arte izango da zabalik. Balioa izango dute urtarilaren 16ra arte. Denetara 76.666 bono daude eta pertsona bakoitzak ezin du bono bat baino gehiago eskuratu. Bonoak *Servikutxaren* bidez lortu daitezke, besteak beste. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

III. URTEURRENA
Jesusa Aranburu Etxenike
2006ko abenduaren 18an hil zen, 89 urterekin
-Goian Bego-
Jesusa gure artetik joan zela urtea bete den honetan, senitartekook oroigarri meza eskaini nahi diogu eta bertara gonbidatzen zaituztegu ezagutu zenuten guztiak. Aldez aurretik, eskerrik asko.
Urteurrenako meza, **BIHAR, OSTIRALA, arratsaldeko 19:00etan**, Hernaniko SAN JOAN BATAIATZAILEA parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.
Hernanin, 2009ko abenduaren 17an



Atez ateko zalantzak argitzen

Atez atekoarekin hondakinen tasa igoko da?

Ez. Udalak 2010 urtean tasa mantendu egingo duela esan du.

Bidali zure galdera helbide honetara: info@hernaniatezate.net
Galde-erantzun guztiak webgunean: www.hernaniatezate.net



❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Alokatzeko edo erosteko etxe txiki baten bila nabil, Hernanin edo inguruetan (berritua edo ez).
Deitu: 943 33 11 83 - 656 721 492

Etxe bila nabil, 2-3 gela dituen. Lehenbailehen sartzeko. Pertsona arduratsua naiz.
Deitu: 638 349 760

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... **Seriotasuna.** Deitu: 616 886 660.

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, **gabonetako eskaintza: %20 aren deskontua**
1. sesioan, "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzalea. **Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.**

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta berbebrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... **Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia,...: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

DORRONSORO
Ogi egin berria beti zure eskura



OKINDEGIA

Orain bi tokitan aurkituko gaituzu:
⇒ **Lizeaga 4an.**
Ogia eta bolteria aukeran.
Ordutegia 07:00-14:00/17:00-21:00
⇒ **Akarregi poligonoan,** obradore nagusia, denda eta kafetegia.
Ordutegia: 05:30-13:30/16:00-19:30

GAUR, SANDIUSTERRIn

19:30 > Hirugarren plenaria

BERTAN BEHERA

Abenduak 22
Laugarren Plenaria



hernani
osasuna atez ate



www.hernaniatezate.net